

Zuzenketarako koadernoa

Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2007

Irakurriaren ulermena 1

Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoa

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



LAS TRES PEQUEÑAS LECHUZAS

1. ¿Qué pretendían los padres de las lechuzas al llevarlas a visitar al búho?

- Que aprendieran a moverse por el bosque.
- Que el búho las conociera y las admitiera en sus clases.
- Que aprendieran cómo vivían otras aves.
- Que las conociera y dijera si eran inteligentes o no.

1 punto / código 1 Respuesta correcta: B

0 puntos / código 0 Otras respuestas

0 puntos / código 9 Sin respuesta o varias respuestas

2. ¿Qué actividad propia de los seres humanos quería aprender Adolar?

1 punto / código 1 Adolar quería aprender a leer.

0 puntos / código 0 Otras respuestas

0 puntos / código 9 Sin respuesta

3. ¿Cuál fue la última lección que dio el búho a las tres pequeñas lechuzas?

1 punto / código 1 Observa todo con exactitud, estudia todo con atención y ayuda cuanto puedas.

0 puntos / código 0 Otras respuestas

0 puntos / código 9 Sin respuesta

4. Numera estas oraciones siguiendo el orden de la historia:

- 2 Las lechuzas vivieron distintas experiencias por el mundo lejos de su familia.
- 3 Contaron lo que habían vivido fuera del bosque al búho.
- 1 Los padres de las lechuzas expusieron al búho su deseo.
- 4 Las lechuzas decidieron quedarse para aprender del búho.

1 punto / código 1

Respuesta correcta: 2-3-1-4

0 puntos / código 0

Otras respuestas

0 puntos / código 9

Sin respuesta

5. ¿Cuál es el problema que se plantea en esta historia? ¿Cómo se resuelve?

2 puntos / código 2

Problema y solución correctos.

Problema: respuestas que hacen referencia a la necesidad de aprendizaje de las lechuzas antes de abandonar a sus padres o a la actitud inicial de prepotencia de dos de las lechuzas ante la sabiduría del búho:

- *Que Adólar y Adrian se creían que eran muy inteligentes.*
- *El de la chulería, porque no querían aprender del búho.*
- *Que antes de valerse por sí mismas les faltaba mucho por aprender.*

Solución: Las lechuzas deciden seguir las lecciones del viejo búho:

- *Al final se dieron cuenta de que no sabían nada y tenían mucho que aprender.*
- *Quieren aprender y el búho les deja ser sus alumnas.*

1 punto / código 1

Problema correcto o solución correcta.

0 puntos / código 0

Otras respuestas

0 puntos / código 9

Sin respuesta

6. ¿Por qué pensaba Adrian que era sabia?

- Porque había aprendido todo lo que debía saber.
- Porque había conocido muchos lugares.
- Porque se lo decían los humanos.
- Porque descubrió un parque zoológico.

1 punto / código 1

Respuesta correcta: C

0 puntos / código 0

Otras respuestas

0 puntos / código 9

Sin respuesta o varias respuestas

7. ¿Qué es lo que más admiraba Adolar de los seres humanos?

- Que sabían arreglar alas de lechuza.
- Que sabían leer y no se cansaban nunca.
- Que habían construido ciudades.
- Que celebraban frecuentes reuniones.

1 punto / código 1 Respuesta correcta: B

0 puntos / código 0 Otras respuestas

0 puntos / código 9 Sin respuesta o varias respuestas

8. Relaciona las siguientes oraciones con cada lechuza y escribe su nombre:

- Poco atrevida y poco segura de sí misma. → _____
- Decidida y le gusta ser admirada. → _____
- Desprecia el saber del búho y admira el de los humanos. → _____

1 punto / código 1 Las tres respuestas correctas: Achim, Adrian, Adolar.

0 puntos / código 0 Menos de tres respuestas correctas.

0 puntos / código 9 Sin respuesta

9. ¿Qué enseñanza o conclusión puedes sacar de la historia que has leído para aplicarla en tu vida? PL3

1 punto / código 1 Respuestas que deriven de hechos o actitudes que se narran o describen en el texto: no debemos pensar que lo sabemos todo de antemano, debemos ser más humildes, siempre podemos aprender algo más, no debemos despreciar la experiencia de los demás, no nos debemos dejar llevar por la primera impresión de algo...

- *Que no hay que creerse los más inteligentes del mundo/ Que aunque creas que sabes mucho y eres el mejor, igual eres el más pardillo de todos.*
- *No hay que ser chulo/ Guardarse de la vanidad/ Que no hay que presumir.*
- *Pues que no hay que ser chula, no hay que creerse más que los demás y que no hay que despreciar a nadie.*
- *Que porque alguien te diga que haces bien una cosa no debes fardar de ello.*

0 puntos / código 0

Respuestas que no tengan algún tipo de relación con el contenido del texto.

0 puntos / código 9

Sin respuesta

10. ¿Crees que la idea que tiene Adrian sobre lo que es un parque zoológico es la que tenemos las personas? Razona tu respuesta.

1 punto / código 1

Respuestas que comparan la versión de Adrian (lugar donde viven los animales más famosos y más bellos del mundo, los animales tienen casa propia, los alimentan, miles de personas los visitan y los admiran, lugar maravilloso para los animales) con el conocimiento que tenemos de lo que es un parque zoológico.

- *No, porque los animales están encerrados.*
- *No, porque ella piensa que es un lugar donde los animales pueden vivir muy bien y todos pensamos que es un lugar donde meten los animales en jaulas y ellos no quieren estar allí.*
- *No, porque Adrian cree que lo de estar siempre en una jaula es bueno.*
- *No, porque pensaba que vivía en el mejor sitio del mundo cuando en realidad la tenían en una jaula.*
- *En algo sí, porque alimentan a los animales y la gente los visita, pero en casi todo no, porque no es el mejor sitio para que vivan los animales.*

0 puntos / código 0

Otras respuestas

0 puntos / código 9

Sin respuesta

11. Escribe otra frase con un significado parecido a cada una de las siguientes:

11.a. El viejo búho permaneció impasible.

1 punto / código 1

Una frase con significado parecido.

- *El viejo búho ni se inmutó, se quedó tan tranquilo.*
- *El viejo búho permaneció serio sin mostrar ningún enfado ni decepción.*
- *El búho estuvo tranquilo en todo momento.*

0 puntos / código 0

Ninguna respuesta correcta.

0 puntos / código 9

Sin respuesta

11.b. El búho vivía en el más recóndito de los rincones del bosque.

1 punto / código 1

Una frase con significado parecido:

- *El búho vivía en el rincón más escondido del bosque.*
- *El búho vivía en el más apartado de los rincones del bosque.*
- *El búho habitaba en el más escondido y oscuro de los lugares del bosque.*

0 puntos / código 0 Ninguna respuesta correcta.

0 puntos / código 9 Sin respuesta

12. Cuando habla Achim en el texto aparecen tres puntos.

- *Pero... ¿no vamos a quedarnos las tres juntas?*

¿Por qué crees que el autor ha escrito esos tres puntos?

1 punto / código 1 Para expresar temor, duda o vacilación.

- *Porque se extraña mucho.*
- *Porque se queda extrañada y pensativa.*
- *Porque está asombrada y confusa.*

0 puntos / código 0 Otras respuestas

0 puntos / código 9 Sin respuesta

ATERPEA

13. Non dago kokatuta aterpe hau?

- Nafarroako hegoaldean
- Iruñerrian
- Araban
- Nafarroako ipar-ekialderantz

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

14. Aukeratu egia dena.

- Aterpean hamabi gela ezberdin daude.
- Aterpeko lehenengo solairuan ez dago komunik.
- Aterpeko logelak oso handiak dira.
- Aterpeak bi solairu ditu.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: B

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

15. Zer esan dezakezu logelen tamainaz?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Tamaina desberdina dutela adierazten badute.

- *Tamaina desberdina daude: 2 lagunentzako, 4 lagunentzako eta 6 lagunentzako*
- *2 lagunentzako, 4 lagunentzako eta 6 lagunentzako dira.*
- *Bi pertsonentzako gelak ez dira oso handiak izango, baina lau edo sei pertsonentzakoak bai.*
- *Batzuk 6-koak, nahiko handiak, 4-koak berdin eta 2-koak txikiak.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

16. Zein izan daiteke arrazoia gela guztietan berogailua izateko?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Eskualde horretan eguraldi hotza egiten duela adierazten badute edo onargarria izan daitekeen beste erantzunen bat.

- *Neguan herri horretan hotza egiten duelako.*
- *Iparraldean zaudenez eta mendien ondoan zaudenez hotz asko egiten du.*
- *Urzainkin hotz asko egingo duelako.*
- *Zona horretan hotza egiten duelako.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

17. Zer esan nahi du “Erronkari aldeko etxebizitza motakoa”-k?

- Aterpea Urzainkiko etxe bat dela, baina ez Erronkarikoa.
- Gainerako etxeek bezala, lau solairu dituela.
- Aterpea, beste etxe batzuk bezala, Erronkariko erdialdean dagoela.
- Aterpeak Erronkarin etxeek duten itxura duela.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

18. Testu honen helburua...

- Urzainki non dagoen azaltzea da.
- Nafarroa ezagutzeko aukera ematea da.
- aterpe baten zehaztapenak ematea da.
- gela bat nolakoa den erakustea da.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

19. Informazio orrian dauden atal edota zatien artean, zein iruditzen zaizu garrantzitsuena? Zergatik?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Zerbitzuak azaltzen dituen atala aukeratzen badute eta arrazoiak ematen badute. Baina beste bat aukeratu gero, ongi arrazoitzen badute, onar daiteke.

- *Aterpeko zerbitzuak, Garrantzitsua delako jakitea horra joateko.*
- *Zer dagoen etxean. Jakiteko zer eraman eta zer ez.*
- *Lehenengoa. Nolako den aterpea azaltzen duelako.*
- *Mapa, jakiteko kokapena eta nola joan.*
- *Bigarren erroko erdiko karratua. Nire ustez hori da garrantzitsuena esaten dizulako jakin behar duzuna joan nahi baduzu..*
- *Nire ustez denak dira garrantzitsuak, baina agian lehen atala, zer den jartzen duelako eta non dagoen.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

20. Nolako bisitariak erakar ditzake iragarki orri honek? Arrazoiak.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Edozein erantzun logikoa ematen badute eta arrazoitzen badute.

- *Mendizaleak diren pertsonak, aterpea mendien artean dagoelako.*
- *Hiritik alde egin nahi dutenak, Herria oso atsegina dirudi eta aterpea oso polita.*
- *Egun gutxi pasa behar duen jendea. Ingurua ezagutu ondoren, ez dago gauza asko egiteko.*
- *Ume txikiak dituztenak, toki lasaia delako eta jolastokia dagoelako.*
- *Beroa nahi ez dutenak, leku hori freskoa delako.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

Zuzenketarako koadernoa

Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2007

Irakurriaren ulermena 2

Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoa

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



ANIMALIEN ERASOA ETA DEFENTSA

21. Zein da testuak aztertzen duen gaia?

- Animalien ugalketa
- Animalien arteko erlazioa
- Belarjaleen elikadura
- Animalien bizitokia

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: B

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

22. Zeintzuk jotzen dute gehien erasora, belarjaleek edo haragijaleek? Arrazoitu zure erantzuna.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 “Haragijaleek” aukeratzen badute eta arrazoia ematen badute: haragijaleek beste animaliei erasotzetik lortzen dutelako elikagaia.

- *Haragijaleak, Animalia biziak harrapatu behar dituztelako jateko.*
- *Haragijaleek, Bere izenak esaten duen bezala, haragia jaten dute, hau da, beste animaliak, Belarjaleek, berriz, belarra eta halañokak jaten dute.*
- *Haragijaleek, Belarjaleek, belarra, hostoak eta fruituak jaten dituzte eta haragijaleek belarjaleak jaten dituzte.*
- *Haragijaleek, Haragia jaten dute eta haragi hori animaliek dute eta orduan animaliak hiltzeko eraso egin behar dute.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 “Belarjaleek” aukeratzen badute; edo “haragijaleek”, baina inolako arrazoi onargarririk eman gabe.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

23. Testuan hauxe irakurtzen dugu: “Euren lumen puntak oso leunak direnez...”
Norenak dira lumen puntak?

- Harrapakinenak

Hegaztienak

Animalienak

Hontzenak

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

24. Zertan dira berdinak kameleoien eta marisorginaren erasorako teknikak?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Hauetariko arrazoi bat edo biak ematen badituzte: kameleoa eta marisorgina geldirik egoten dira adar batean zain eta intsektuak abiadura handiz ehizatzen dituzte.

- *Ba geldirik geratzen direla intsektu bat etorri arte.*
- *Biek oso azkar erasotzen dutela.*
- *Biek oso azkar ehizatzen dituztela intsektuak.*
- *Geldirik geratzen direla eta intsektu bat hurbiltzen bada ziztu bizian harrapatzen dutela.*
- *Bi animaliak geldirik egoten dira adar batean, eta intsektu bat hurbiltzen zaienean abiadura ikaragarriaz ehizatu egiten dute.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

25. Animaliek pozoia ...

erasotzeko bakarrik erabiltzen dute.

defentsarako bakarrik erabiltzen dute.

bai defentsarako bai erasorako erabiltzen dute.

ez dute inoiz erabiltzen.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9

Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

26. Kilkerrak hegoetan begi itxurazko orbanak ditu...

- hobeto ikusteko.
- ikus ez dezaten.
- defentsarako.
- erasotzeko.

Puntuak: 1 / Kodea: 1

Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0

Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9

Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

27. Testu honek bi atal nagusi ditu. Esan zeintzuk diren.

Puntuak: 1 / Kodea: 1

Bi atalak aipatzen badituzte, animalien erasoa eta animalien defentsa.

- *Animalien erasoa eta animalien defentsa.*
- *Erasoa eta defentsa.*
- *Animalia desberdinen erasoa eta defentsa.*
- *Animaliek nola erasotzen duten eta nola defendatzen diren.*
- *Animalia batzuen erasotzeko modua eta defentsarako modua.*

Puntuak: 0 / Kodea: 0

Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9

Erantzunik gabe

28. Animalia batzuek zapore nazkagarria dute...

- hondakinak jaten dituztelako.
- gaixorik daudelako.
- etsaiei hobeto erasotzeko.

etsaiek jan ez ditzaten.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: D

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

29. Arrain hegalaria uretatik ateratzen dira ...

arnasa hartzeko.

eltxoak harrapatzeko.

harrapariengandik ihes egiteko.

azkarrago mugitzeko eta beste izaki batzuk ehizatzeke.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Erantzun zuzena: C

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Beste erantzunak

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe edo erantzun bat baino gehiago

30. Testu honetan agertzen diren animaliez gain, ezagutzen al duzu besteren bat erasorako edo defentsarako teknika horiek erabiltzen dituenen? Aipatu animalia horietako baten izena eta erabiltzen duen teknika.

Puntuak: 1 / Kodea: 1 Animalia baten izena eta erasorako edo defentsarako erabiltzen duen teknika aipatzen badute:

- *Lehoiak, Isil-isilik hurbiltzen dira eta hurbil daudenean gainera salto egiten dute.*
- *Astoa, ostikadak ematen.*
- *Igela. Kameleonia bezala harrapatzen ditu intsektuak.*
- *Mofeta, usaina botatzen.*
- ...

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Animalia izena jartzen badute baina teknika azaldu gabe; beste erantzun batzuk

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

31. Testuan honako hitzak agertzen dira: “indartsuak”, “pozoitsua”, “distiratsuak”. Nola daude osaturik hitz horiek. Zer esan nahi dute?

Puntuak: 1 / Kodea: 1 -TSU atzizkiarekin osatuta daudela esan behar da eta atzizki hori ugaritasuna adierazteko erabiltzen dela.

- *Hiru hitzek, -tsu atzizkia daramate. Indartsuak, indarra dutela; pozoitsua, pozoia duela; distiratsuak, distira dutela.*
- *Indartsua: indar asko du; indar-tsua (asko). Pozoitsua: pozoia duela; pozo-tsua (asko). Distiratsuak: distira dutela; distira-tsua (asko).*

Puntuak: 0 / Kodea: 0 -TSU bakarrik jarri bada, esanahia azaldu gabe; edo beste erantzun batzuk emanaz gero.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

32. Egin ezazu testu honi buruzko eskema edo kontzeptu mapa. Antola ezazu nahi duzun bezala. Honela egin dezakezu: erasotzeko eta defentsarako teknikak aipatu eta adibide bana jarri.

Puntuak: 3 / Kodea: 3 Nahiko informazio garrantzitsua erakusten du eta hierarkizatua.

Puntuak: 2 / Kodea: 2 Nahiko informazio garrantzitsua erakusten du, baina hierarkiarik gabe.


Puntuak: 1 / Kodea: 1 Oinarrizko informazioa aurkezten du, baina informazio garrantzitsua falta da (atal bat falta da...)

Puntuak: 0 / Kodea: 0 Oso informazio gutxi erakusten du.

Puntuak: 0 / Kodea: 9 Erantzunik gabe

Edozein teknika erabiltzea onargarria bada ere, nahiko informazio garrantzitsuaren eta hierarkizatuaren adibide bat ondorengoan izan daiteke:

**ANIMALIEN
ERASOA ETA DEFENTSA**



PROBAREN DESKRIBAPENA

Item kopurua: 32.

Puntuak, guztira: 36

- Puntu bat balio duten galderak: 1-2-3-4-6-7-8-9-10-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31
- Bi puntu arte balio duten galderak: 5-11
- Hiru puntu arte balio duen galdera: 32

PROBAREN BALORAZIOA

Zikloko helburuak argi eta garbi lorturik: 25 puntu.

Helburuak doi-doi lorturik edo lortzeko bidean: 22-24 puntu

Zikloko helburuak lortu gabe: 21 puntu edo gutxiago

ITEMAK ETA PUNTUAZIOA TESTU MOTAREN ARABERA

TESTU MOTAK	ITEMAK	PUNTUAZIOA	OHARRAK
Narrazioa	1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12	14 puntu	2 puntu: 5. eta 11. itemak
Testu etenduna	13-14-15-16-17-18-19-20	8 puntu	
Azalpen testua	21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32	14 puntu	3 puntu: 32. itema
Guztira	32 item	36 puntu	

ITEMAK ETA PUNTUAZIOA HIZKUNTZAREN ARABERA

TESTU MOTAK	ITEMAK	PUNTUAZIOA	OHARRAK
Gaztelania	1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12	14 puntu	2 puntu: 5. eta 11. itemak
Euskara	13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30-31-32	22 puntu	3 puntu: 32. itema
Guztira	28 item	36 puntu	

ITEMAK ETA PUNTUAZIOA IRAKURTZEKO PROZESUEN ARABERA

IRAKURTZEKO PROZESUA	ITEMAK	PUNTUAZIOA	OHARRAK
Informazioa berreskuratzeko galderak	1-2-3-6-7-13-14-15-24-28-29	11 puntu	
Ulermen globalerako galderak	4-18-21-32	6 puntu	3 puntu: 32. itema
Interpretaziorako galderak	5-8-9-11-16-17-20-22-23-25-26	13 puntu	2 puntu: 5. eta 11. itemak
Edukiaren hausnarketari buruzko galderak	10-19-30	3 puntu	
Formaren gaineko hausnarketari buruzko galderak	12-27-31	3 puntu	
Guztira	32 item	36 puntu	

Puntuak, guztira:

ZUZENTZAILEARENDAKO MATERIALA

Lehen Hezkuntzako seigarren kurtsoa
Problemen ebaluazioa

Izena eta deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua

Problemak zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak.

1.- "Bost puntu" emanen dira, problema ongi planteatu bada eta emaitza zuzena bada.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Problemak ulermen jardueraren bat baldin badu, eta ikasleak ulermen jarduera horietako baten batean huts egin arren ongi planteatu eta zuzen ebatzi badu, 5 puntu emanen dira.
- b) Problema ongi planteatu bada, paperean desordenaturik izanagatik ere 5 puntu emanen dira.
- c) Eragiketaren bat falta bada, baina aparteko zirriborro batean egin izanaren susmoak badaude, 5 puntu emanen dira. Berdin jokatuko da eragiketa buruz egin bada.

2.- "Lau puntu" emanen dira problema ongi planteatu arren emaitza okerra bada, eragiketaren batean okertu delako. Nolanahi ere, emaitza sinesgarria izanik.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Emaitza "sinesgarritzat" joko dugu muga logikoen barnean sartzen denean, problemaren enuntziatuan ageri diren kopuruen arabera. Hau da: ikasle batek problema berriro irakurriko balu eta egin duen planteamendua eta eman duen soluzioa berrikusiko balitu, ez litzateke berak kalkulaturako emaitzarekin harrituko.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio, edozein kasutan 4 puntu emanez.

3. "Hiru puntu" emanen dira problema ongi planteatu arren emaitza okerra bada, eragiketaren batean okertu delako. Emaitza sinesgaitza da.

Plantea daitezkeen kasuak:

- a) Emaitza "sinesgaitzat" joko da atera den kopurua inolaz ere ez baldin badator bat problemaren datuekin eta soluzioarekin. Hau da: ikasle batek problema berriro irakurriko balu eta egin dituen planteamendua eta soluzioa berrikusiko balitu, berak emandako emaitzarekin zeharo harrituko litzateke eta horrek eragiketak berrikustera behartuko luke, non okertu den antzemateko.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio, edozein kasutan 3 puntu emanez.

4.- "Bi puntu" emanen dira, problemaren planteamendua aztertu ondoren, antzematen bada ikasleak problema ebazteko beharrezkoak diren eragiketa eta arrazoibideetatik, bakarren bat egin duela. Beraz, esan daiteke problema ebazten hasi eta bideratzen hasi dela, baina nonbait ez duela behar den sekuentzia segitu edo hartatik desbideratu dela. Esan daiteke problema parte batean ulertu duela.

Plantea daitezkeen kasuak:


- a) Kalifikazioa ematerakoan, honako hau da kasurik zailena. Bi urrats edo gehiagoko problemetan, bi puntu emanen dira urrats horietako bat egin edo planteatu badu. Problema bakoitzari dagozkion irizpideetan kasuistika zehazten da, adibide modura-
edo.
- b) Aurreko puntuan esandakoa atal honi ere aplikagarri zaio (kasu guztietan bi puntu emanen lirateke).

5.- "Puntu bat" emanen da, problemak alde zuzeneko ulermeneko jardueraren bat badu eta jarduera horri erantzun ona eman bazaio, gainerakoa (planteamendua eta emaitza) oker egon arren. Halako galderarik ez duten problemetan ez da puntu hori emateko aukerarik kontuan hartuko.

Plantea daitezkeen kasuak:

Problemaren batean gerta daiteke aipatutako kategoria hau kontuan hartu behar izatea, problemaren beraren egitura dela-eta. Halakoetan, problemaren zehaztapenetan agertuko da.

1.-Andonik bere etxetik zuhaitzera joan behar du eta handik berriro bere etxera itzuli. Ibaia zeharkatzeko ibai gaineko zubiak erabiliko ditu. Andonik bederatzi aukera (edo bide) ditu bere etxetik zuhaitzera joan eta handik berriro bere etxera itzultzeko. Idatzi argi aukera horiek guztiak.



Erantzuna:

- a) 1-2-2-1
- b) 1-3-3-1

- c) 4-4
- d) 1-2-3-1
- e) 1-3-2-1
- f) 1-2-4
- g) 1-3-4
- h) 4-3-1
- i) 4-2-1

Zuzenketa irizpideak:

- a) Bederatzi aukerak planteatzen baditu, bakar bat ere errepikatu gabe 5 puntu.
- b) Bederatzi aukerak zuzen planteatzen baditu, baina, horietaz gainera, baten bat errepikatu badu4 puntu.
- c) Zortzi aukera planteatzen baditu (zortzi horietako baten bat errepikaturik egon daiteke)3 puntu.
- d) Sei-zazpi aukera planteatzen baditu (horietako baten bat errepikaturik egon daiteke)2 puntu.
- e) Sei aukera baino gutxiago planteatzen baditu 1 puntu.
- f) Ez du problema ulertu0 puntu.

Oharra: erantzun errepikatuak edo okerrak ez dira kontatzen.

2.- Zuhaitz egunean landatuko diren zuhaitzak 51 bandejatan daude eta bandeja bakoitzean 40 zuhaitz daude. 6. kurtsoko ikasleak 15 taldetan banatu gara eta talde bakoitzak zuhaitz kopuru bera landatu behar du. Anek bere taldekoei esan die 8 dozena zuhaitz landatu behar dituztela atsedenaldia baino lehenago. Atsedenaren ondoren, zenbat zuhaitz landatuko ditu Aneren taldeak?

Hurrengo koadroan, idatzi zeri dagokion zenbakietako bakoitza:

51	Zuhaitz bandejak.
6.	Ikasleen kurtsoa.
40	Bandeja bakoitzean dauden zuhaitzak.
8	Zuhaitz dozena.
15	Taldeak.

Problema ebazteko, zer datu ez da beharrezkoa?

6. kurtsoko ikasleak.

Erantzun "Egia" (E) edo "Gezurra" (G):

- Zuhaitz guztiak atsedenaldia baino lehenago landatu behar dituzte (G)
- Bandeja bakoitzean 40 zuhaitz daude..... (E)
- Talde bakoitzak ahal dituen zuhaitzak landatuko ditu(G)
- Aneren taldeak 80 zuhaitz landatu behar ditu atsedenaldia baino lehenago(G)

Ebatzi problema.

$51 \times 40 = 2040$ zuhaitz (landatu beharrekoak).

$2040 : 15 = 136$ zuhaitz (talde bakoitzak landatu beharrekoak).

$8 \times 12 = 96$ zuhaitz (atsedenaldia baino lehenago landatu beharrekoak).

$136 - 96 = 40$ zuhaitz (atsedenaldiaren ondoren landatu beharrekoak).

Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna sinesgaitza da:..... 3 puntu.
- d) Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez:
 - kalkulatu du landatu beharreko zuhaitzen kopurua; gainerakoa, oker egin du.
 - kalkulatu du zenbat zuhaitz landatu dituen atsedenaldira arte; gainerakoa ez da zuzena,
 - etab..... 2 puntu.
- e) Planteamendua okerra bada ere, ulermeneko galderei zuzen erantzun die.. 1 puntu.

f) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago.....0 puntu.

3.- Iñakik futbol taldetako pinen bilduma egiten du. 3 dozena oparitu ditu eta orain Bertak baino 27 pin gehiago ditu. Bertak 69 pin baditu, zenbat pin zituen Iñakik hasieran?

3 X 12 = 36 pin oparitu ditu Iñakik,

69 + 27 = 96 pin ditu Iñakik, 3 dozena oparitu ondoren.

96 + 36 = 132 pin zituen Iñakik hasieran.

Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna sinesgaitza da:..... 3 puntu.
- d) Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez: Iñakik oparitu dituen pinak kalkulatu ditu2 puntu.
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago.....0 puntu.

4.- 3 orduko bideo-zinta batean bi gauza grabatu ditugu: ordu bat eta berrogeita bost minutuko film bat eta hamabi minutuko dokumental bat. Zenbat minutu gelditu dira grabatu gabe zintan?

$3 \times 60 = 180$ minutu (zintaren iraupena).

1 ordu eta 42 minutu $= 60 + 42 = 102$ minutu (filmaren grabazioa).

$102 + 12 = 114$ minutu (grabazioa, guztira).

$180 - 114 = 66$ minutu (grabatu gabe).

Era berean, modu konplexuan egin daitezke eta gero azken kopurua minututan eman

1 h 42 min $+ 12$ min $= 1$ h 54 min

$3 \text{ h} - 1 \text{ h } 54 \text{ min} = 1 \text{ h } 6 \text{ min} = 66 \text{ minutu.}$ (Ordutan eta minututan ematen bada ere, ontzat ematen ahal da.)

Zuzenketa irizpideak:

- e) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- f) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- g) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna sinesgaitza da:..... 3 puntu.
- h) Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez:
-planteamendua zuzena bada ere, ez ditu unitateak zuzen erabili.
-kalkulatu du grabatutako denbora, baina ez bi denboren arteko aldea.
-hiru orduri ordu bat eta berrogeita bi minutu kendu dizkio, baina ez du lortu problema ebaztea.
-etab.2 puntu.
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago.....0 puntu.

5.- Lehen Hezkuntzako seigarren kurtsoko 75 ikasleek kirol bana aukera dezakete. Ikasle horietatik 2/5ek igeriketa aukeratu dute, 1/3ak saskibaloia aukeratu du eta 8 ikaslek judoa aukeratu dute. Seigarren kurtsoko zenbat ikaslek ez du kirol horietako bakar bat ere aukeratu?

75etik $2/5 = 30$ ikaslek igeriketa egiten dute.

75etik $1/3 = 25$ ikaslek saskibaloian jokatzeko aukeratu dute.

$30 + 25 + 8 = 63$ ikaslek kirolen bat egiten dute.

$75 - 63 = 12$ ikaslek ez dute aipaturiko kirolenako bakar bat ere egiten.


Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da:..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da:..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna sinesgaitza da:..... 3 puntu.
- d) Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez:
 - 75ren $2/3$ kalkulatu du, baina ez du jarraitu
 - etab.2 puntu.
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago.....0 puntu.

6.- Herriko plazan triangelu aldeberdin bat margotu dute. Triangeluak 96 metro ditu perimetroan. Margotutako triangeluaren hiru aldeen erdiko puntuak erpin modura hartuta, are txikiagoa den triangelu bat marraztu behar da. Zenbat neurtuko du bigarren triangelu horren perimetroak? Zenbat triangelu txiki behar dira triangelu handi hori oso-osorik betetzeko? Egin marrazki bat triangelu handiarekin eta triangelu txikiarekin.

Lehen zatia:

$96 : 3 = 32 \text{ m}$ neurtzen du triangelu handiaren alde bakoitzak,



32 : 2 = 16 m neurtzen du triangelu txikiaren alde bakotzak,

16 X 3 = 48 m neurtzen du bigarren triangeluaren perimetroak,

Bigarren zatia:

Lau triangelu beharko dira triangelu handia oso-osorik estaltzeko.

Bitxia da, baina gerta daiteke ikasleren batek dena urrats bakarrean egitea: 96 : 2 = 48 m

Zuzenketa irizpideak:

- a) Problema ongi planteatu da eta emaitza zuzena da (egin duen marrazkia zuzena da):..... 5 puntu.
- b) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Hala ere, erantzuna sinesgarria da (egin duen marrazkia zuzena da):..... 4 puntu.
- c) Problema ongi planteatu da, baina eragiketaren batean okertu da. Erantzuna sinesgaitza da (marrazkia ez da beharrezkoa puntuatzeko):..... 3 puntu.
- d) Problema ebazteko egin behar ez den zerbait egin du. Problema bideratu du, nahiz eta planteamendua ez den zuzena fase guztietan. Hortik ondorio hau atera dugu: problema parte batean bakarrik ulertu du.
Adibidez:
 - ongi egin du marrazkia
 - perimetroa kalkulatzen saiatu da, baina okertu da 2 puntu
- e) Planteamendua okerra da eta galdera ulertu duen arrastorik ez dago.....0 puntu.